

AMEZKETAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA
“AMESTU AMEZKETA” HERRITARREN PARTE HARTZE PROGRAMA

AURKIBIDEA:

- I. KAPITULUA.
 - 1. ATALA. KONTZEPTUALIZAZIOA
 - 2. ATALA. LEGE-ESPARRUA
- II. KAPITULUA. HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK
- III. KAPITULUA. METODOLOGIA
- IV. KAPITULUA. EKINTZEN PROGRAMA

I. KAPITULUA

1 ATALA. KONTZEPTUALIZAZIOA

Proposatzen den parte hartzeak Demokrazia Deliberatiboa onartzen du politika publikoak garatzeko tresna gisa. Baina, zer da Deliberazioa?

Azken urteotan, partaidetza kultura eta esperientziak areagotzen diren heinean, deliberazio espazioak eratu dira nonahi. Demokrazioaren paradigma berri baten aldarri bezela irudikatu dira politika publikoen erabakietan herritarren ahotsa modu ezberdinetan txertatzen diren espazio eta momentu berriak.

Soziologo eta politologo ezberdinen arabera, deliberazio une eta guneak, interes ezberdinen batuketa hutsal bat gertatzen den momentua baino, erabaki konplexuagoak hartzen diren tokiak dira.

“La deliberación se aleja mucho de la idea de la mera agregación de intereses y, paralelamente, desborda los enfoques más reduccionistas de la democracia participativa, en los que prima únicamente la afluencia de los sujetos en la arena pública para la toma de decisiones colectivas, aunque no por ello rehúye en ningún momento la necesaria concurrencia de todos los actores afectados por una decisión pública. (...) La comunidad sin participación ni deliberación genera, en primer lugar, consenso irreflexivo y uniformidad, y, en segundo lugar, alimenta una conformidad coercitiva presidida por lo que podríamos llamar «un colectivismo unitario». Por otra parte, la participación sin comunidad nos aboca a una lucha de intereses competitiva y desorientada que reafirma la negación de la propia idea de comunidad.”

Francisco José Francés García

Autoreak dion bezala, Deliberazio G-unerik gabeko komunitateak konformismoan erortzen dira baina bestalde, azpimarragarria da baita ere, alderantziz, komunitaterik gabeko parte hartzea interesen arteko borroka hutsa besterik ez dela. Hau dela eta, ezinbestekoa izango da Amezketak berezkoa duen masa kritiko plural bat osatzea Deliberazio G-uneak emankorrak izan daitezen.

2 ATALA. LEGE ESPARRUA

EAEEn kasuan, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza antolaketaren oinarritzko printzipio bezala tratatzen du (8. artikulua, Herritarren parte-hartzearen printzipioa), eta egiturazko antolaketa ukitzen duen hirigintza plan bat idazteko orduan ezinbesteko tresna bezala hartzen du (108. Artikulua, Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa). Dokumentu honetan izapide honi ekiten diogu, aipatutako araua betez:

“Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udalerabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu.”

II. KAPITULUA. HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Parte Hartze Programaren eraginkortasuna indartzeko Plan Orokorraren diagnosi teknikoari Herritarren Diagnosi Partekatua gehituko zaio. Programa honen helburua da Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentua osatzeko momentuan Talde teknikoek herritarren kontrastea izatea. Modu honetan honako helburu nagusiak bilatzen dira:

- Lehen urratsetatik bai herritar eta baita erakundeek ere herriko asmo nagusien berri izatea.
- Herritarrak, interes partikularretatik interes kolektiboen eremura mugitzera haien proposamenak.
- Diagnostika osotasunean ezagutu eta barneratzea.
- Hirigintzak eta honen prozesuen inguruko ahalduntzea garatzea herrian.
- Erabakien erantzunkizun parteaktua sustatzea.

Helburuok gauzatzeko estrategiak:

- Herritarrak lehen urratsetatik bai lan mahai, hitzaldi eta deliberazio guneteera deitu.
- Deialdiak kanal ezberdinen bitartez gauzatu dira ahalik eta perfil ezberdin anitzez osatutako bilkurak izan daitezten.
- Herritar, ordezkari eta erakundeen arteko akordioen sendotasuna sustatu

III. KAPITULUA. METODOLOGIA

Erabilitako metodologia Ikerketa-Ekintza parte hartzaile deritzon prozesu motan oinarritzen da. Parte hartzaile izango diren subjektuak prozesua aurrera joan ahala beraien iritzia eraiki eta adostasun kolektiboetan oinarrituko diren proposamenen inguruan murgilduko dira.

Prozesuan gune irekiago eta itxiagoak izango dira. Lehen diagnosi partekatua irekia izango da, Herritar guztien arteko diagnostika alegia. Talde Eragilea osatuko da gerora egingo diren prozedura moten eraginkortasuna hobetzeko. Talde Eragilea transmisorea bilakatuko da eta ondorengo momentu irekietan ahalduntze eta iritzien lanketa bat izango da.

Lehen aurkezpen eta saio monografikoek herritarren ahalduntzea izango dute helburu. Hala ere metodologiak onartzen duen bezala, prozesua aurrera joan hala parte hartzaileen ahalduntze mailak gora egingo du.

Informazioa etengabe transmitituko da espreski prozesurako sortu den webgune eta sare sozialen bitartez. Baita ere tarteka Aldizkariak argitaratuko dira prozesuan klabe diren momentuetan.

Lan mahaiak edo Deliberazio G-uneak izango dira prozesuaren mugarri nagusiak. Deliberazioak sortuko ditu Plan Orokorra idazteko beharrezko izango diren material nagusiak.

IV. KAPITULUA. EKINTZEN PROGRAMA

1. URRATSA – DIAGNOSI PARTEKATUA

1.1. Banakako eta Taldekako Elkarrizketak: Udalerriko eta Eskualdeko herritar, ordezkari eta erakunde ezberdinekin Aurre diagnosi teknikoak mahai jartzen dituzten erronka, gabezi eta aukerak kontrastatuko dira.

1.2. Webgunea eta komunikazio sareen eratzea: Aurrera prozesuan informazio gune izango den webgunea sortu eta era berean sare sozialen prestaketa.

1.3. Prozesuaren lehen aldizkariaren argitalpena: Lehen aldizkaria herriko buzoietan banatuko da Herritar guztiek aurre diagnosi teknikoa ezagutu eta deialdien berri izateko.

1.4. Prozesuaren aurkezpen saioa: Herriko aretoan aurkeztuko dira prozesuaren helburu, metodologia eta ekintzak. Era berean aurre diagnosi teknikoaren hiru atal nagusien aurkezpena egingo da: Hirigintza, Ingurugiroa eta Sozioekonomia.

1.5. Sentsibilizazio hitzaldiak: Aurre diagnosiak aukreztan dituen erronka edota kezka nagusien inguruko hitzaldi sorta egingo da herritarren prestakuntza saio gisa.

1.6. Emakumeak erdigunean: Lehen azterketa teknikoek jartzen dute emakumea zaugarritasun egoeran. Prozesuan zeharka landuko duen taldea osatuko da.

1.7. Txangoa Amezketatik: Mahaietan parte hartuko duten eta orohar edozein herritarrei zabalduko zaien esperientzia partekatua da. Aurre diagnosi teknikoan nabarmentzen diren gai nagusitaz hitzegingo da herriko toki ezberdinetan.

1.8. Deliberazio mahaiak (1) 7 AMETS: Herritarren lehen asmoak jasoko dituen lan mahaiak

1.9. Deliberazio mahaiak (2) GUZTION MAPA: Herritarrek dituzten asmo eta kezkak modu kolektiboan mapeatuko dira.

1.10. Deliberazio mahaiak (3) MAPA BATERATUA: Talde anitzetan sortu diren mapak bateratuko dira eta agerian agertuko dira gatazkatsuak diren eremu edo gaiak eta adostasuna duten haiek.

1.11. Itzulketa Saioa: Diagnosi Partekatua eman dituen mapa bateratu eta lan ildoan aurkezpena egingo da honen gaineko azken ekarpenak jasotzeko asmoz.

1.12. Diagnosi Partekatua Sintesi Dokumentua osatuko da Webgunean argitaratu eta Udalean kontsultagarri izan dadin.

**Arestian aurkeztutako AHAPOn 1. URRATSA 2017ko urria eta abendua bitartean garatu da; urratsaren ondorioz sortutako Diagnostiko Partekatua agiria ondorengo loturan aurki daiteke:*

https://issuu.com/amestuamezketa1/docs/ahapo_-_diagnostikoa

2. URRATSA – AURRERAPENA

2.1. Talde Eragilea: Lehen urratsetik sortutako herritarren Talde Eragilea osatuko da datozen prozesuaren momentu batzuetan Talde Teknikoarekin kontrasteak egingo dituen eta agertzen diren ekimen ezberdinen ebaluazioa egingo duena.

2.2. Saio Monografikoak: Diagnosi Partekatuan agertu diren gai eta eremu gatazkatsuen inguruko saio monografikoak antolatuko dira

2.2. Aurrerakinaren lehen zirriborroen kontrastea: Aurrerapen dokumentuaren zirriborroa eta hauen alternatibak prest direnean lehen kontraste tailerra egingo da talde eragilearekin.

2.3. Alternatiben lan-mahai tailerrak: Herritar eta kolektibo guztiei irekitako lan mahai hauetan alternatiba ezberdinen lanketa egingo da eta iradokizun eta proposamenak jasoko dira. Talde Eragileak lan mahaietan jazotakoa elkarbanatuko dute.

2.4. Aurrerakina egiteko Oinarrizko Dokumentua: Aurrekoak jasotzen dituen dokumentua osatuko da Aurrerapen dokumentua osatzeko oinarri izango dena. Talde Eragilearekin kontrastatua.

2.5. Jendaurreko erakusketa: Legeak agindu bezala, Aurrerapen dokumentua **2 hilabetez** egongo da **jendaurrean ikusgai**, edonork iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

2.6. Aldizkariaren argitalpena: Aurrerapen dokumentuaren sintesia jasoko duen argitalpena herritarren buzoietan banatuko da.

2.7. Webgunearen eguneratzea: Aurrerapen dokumentuaren sintesia webgunean argitaratuko da honen bitartez ere iradokizunak jasotzeko kanalak erraztuz.

2.8. Jendaurreko aurkezpena: Herriko gune adostu batetan Aurrerapen Dokumentuaren aurkezpena eta azalpena egingo da. Talde Eragileak, Arkitektoek eta Lege aholkulariak kezkak eta iradokizunak jasoko dituzte.

2.9. Ebaluazioa: Webgunearen bitartez eta buzoia bitartez inkesta bat zabalduko da.

2.10. Sintesi Dokumentua: HAPOa egiteko oinarrizko dokumentua osatu duen parte hartze prozesuari buruzko txostena.

3. URRATSA – HASERAKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA

3.1. Jendaurreko erakusketa: Legeak agindu bezala, Aurrerapen dokumentua **hilabete 1** egongo da **jendaurrean ikusgai**, edonork alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.2. Informazio saioa: Talde Eragileak, Arkitektoak, Lege aholkulariak eta Ingurumen arduradunak azalduko dituzte edukiak eta informazio elkarbanatu.

3.3. Jendaurreko aurkezpena: Herriko gune adostu batetan Haserako Onarpenerako Dokumentuaren aurkezpena eta azalpena egingo da.

3.4. Webgunearen eguneratzea: Haserako Onarpenerako dokumentua webgunean argitaratuko modu ulergarrian.

3.5. Aldizkariaren argitalpena: Prozesuko hirugarren aldizkaria argitaratu eta herriko buzoietan banatuko da. Bertan Haserako Onarpenerako dokumentua eta parte hartze prozesuari buruzko txostena garatuko dira.

4. URRATSA – BEHIN BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA

4.1. Informazio saioa: Prozesuaren buruzko informazio hitzaldia.

4.2. Webgunearen eguneratzea: Behin behineko dokumentua webgunean argitaratuko da modu ulergarrian.